

# II JARDUNALDIAK

## Ikerketa Feministarako Metodologia: giza eskubideen aldeko tresnak eta aplikazioak



### Aurkezpena

Unibertsitatearen komunitatean eta gizarte-erakunde eta mugimenduetan ikerketa feministarako gaitasunak sendotzea da jardunaldi hauen helburu nagusia. Unibertsitatean bide luzea dago oraindik egiteko feminismoaren proposamen epistemologiko-metodologikoen ezagutzari eta aplikazioari dagokionez; aldi berean, gizarte-erakundearen artean (feministak, giza eskubideen arlokoak, GKEak, etab.), ikerketa gero eta estrategia garrantzitsuagoa da giza eskubideen urraketak salatzeko.

Garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruan, ikerketek ez diote beti mesede egiten Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko berdintasuneko trukeari; horietako asko partaidetzaren ikuspegitik baino gehiago erauzketaren ikuspegitik egiten dira, eta ahalduntzearen eta gizarte-eraldaketaren prozesu zehatzetatik bereizirik daude. Gertaera hori nabarmendu egiten da emakumeei dagokienez, izan ere, haien ikerketarako ekimenek laguntza gutxi izaten dituzte eta ez dira garrantzizkotzat hartzen objektibotasun zientifikoaren irizpideen arabera. Horren guztiaren aurrean, feminismoa da ikerketa modu berri bati oinarritzeko ekarpenak egin dizkion korrante nagusietako bat, hain zuzen ere, modu horizontalagoko eta azken helburutzat berdintasuna duen ikerketa moduari.

Jardunaldietan hitzaldiak, aldibereko tailerrak eta esperientzien mahai bat antolatuko dira. Ikerketa feministaren arloko espezialistek parte hartuko dute, eta, horiekin batera, ikerketa-tresna espezifikoak landuko dira lehenengo egunean, eta tresna horiek aplikatzeko adibideak, berriz, bigarrenegun.

Laguntzaileak:



**Noiz:** 2014ko ekainaren 19an eta 20an.

**Non:** Donostian. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Gradu Aretoan. Ibaetako campusa, UPV/EHU, Tolosako Hiribidea 70.

### Hartzaileak

**Unibertsitateko komunitatea:** UPV/EHUko eta Estatuko beste unibertsitateetako irakasleak, ikertzaileak eta gradu eta graduondoko ikasleak.

**Mugimendu feministen** eta giza eskubideen arloko erakundeak, GKEak, erakunde publikoetako langileak, ikerketa eta prestakuntza zentroak eta interesa daukaten beste pertsona batzuk.

### Antolamendua

Jardunaldi hauek Hegoa-Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketen Institutua-k eta SIMReF-Ikerkuntza Feministarako Metodologia Diziplina Anitzeko Mintegia-k antolatuko dira, UPV/EHUko UFI Hegoa-Estudios de Desarrollo eta Berdintasun Zuzendaritzaren laguntzaz, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz ere.

### Izen-ematea

Jardunaldietan parte hartzeko aurretik eman behar da izena webgune honetan: <http://metodologiainvestigacionfeminista.wordpress.com/> Izen-emateak plazak bete arte baieztatuko dira. Parte hartzeko konpromisoa eskatzen da. Izena emateko azken eguna: ekainak 9.



# Egitaraua

## Ekainak 19

- 09.00 Erregistroa
- 09.15 Ongi-etorria eta aurkezpena
- 09.30 **Epistemologia feministen aurrerakuntzak, arazoak eta erronkak gizarte-ikerketan**  
Bárbara Biglia, Rovira i Virgili Unibertsitatea (Tarragona)
- 10.30 **Tresna metodologikoen aurkezpena: Azterketa interseksionala, Narratiben eraikuntza eta Diskurtsoaren azterketa**  
Raquel (Lucas) Platero, Rey Juan Carlos Unibertsitatea (Madril)  
Itziar Gandarias Goikoetxea, Nagore García Fernández. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa  
Jokin Azpiazu Carballo, UPV/EHU
- 11.30 Etenaldia-kafea
- 12.00 **Aldibereko tailerrak**  
1. tailerra: Azterketa interseksionala. Arduraduna: Raquel (Lucas) Platero  
2. tailerra: Narratiben eraikuntza. Arduraduna: Itziar Gandarias Goikoetxea eta Nagore García Fernández.  
3. tailerra: Diskurtsoaren azterketa. Arduraduna: Jokin Azpiazu Carballo
- 14.00 Bazkaria
- 15.00 **Aldibereko tailerrak (jarraipena)**
- 17.00 **Kolonialismoaren ondorengo feminismoaren proposamen teoriko-metodologikoak**  
Ochy Curiel, Kolonbiako Unibertsitate Nazionala
- 18.30 Lehenengo egunaren amaiera

## Ekainak 20

- 09.30 Bateratze lana aldibereko tailerretan
- 11.00 Etenaldia-kafea
- 11.30 Ikerketa feminista aplikatuaren inguruko esperientziak  
1. **Azterketa interseksionala *Tejidos que lleva el alma. Memorias de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado* ikerketan**  
Amandine Fulchiron. Actoras de cambio, Guatemala  
2. **Metodo narratiboa *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia* ikerketan**  
Elena Grau. ICIP-Institut Català Internacional per la Pau (Bartzelona)  
3. **Diskurtsoaren azterketa. *Interrogándonos sobre las representaciones y discursos acerca de las "mujeres inmigrantes"***  
Carmen Gregorio Gil. Granadako Unibertsitatea
- 13.00 Elkarrizketa irekia hizlariekin
- 14.00 Bazkaria
- 15.30 **Ikerketarako bilgune feministak: unibertsitatea eta gizarte-mugimendua**  
Mari Luz Esteban, UPV/EHU
- 17.00 **Aipamenak eta agurra**
- 20.00 Jardunaldien amaiera festa



# Gonbidatuei buruzko aipamen laburra

## Bárbara Biglia

Psikologiako doktorea eta Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslea. Bertatik koordinatzen du Ikerketa Feministarako Metodologiaren Diziplinarteko Mintegia (SIMReF). Genero indarkerien eremuan lan egin du, bai maila teoriko-akademikoan bai zuzeneko arreta zerbitzuen eremuan. Espezialista da epistemologian eta metodologia feministan nahiz genero azterketetan, eta gai horri buruzko hainbat argitalpen ditu.

## Raquel (Lucas) Platero

Soziologia eta psikologiako doktorea, eta aktibista; era berean, irakaslea da Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitatean. Europako hainbat ikerketa proiektutan lan egin du, hala nola, MAGEEQ eta QUING proiektuetan, Europako genero berdintasunaren politiken interpretazio esparruei eta kalitateari buruzko azterketaren gainean. Ikerketa esparruak sexualitateari, generoari eta interseksionalitateari buruzkoak dira.

## Itziar Gandarias Goikoetxea

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Psikologia Sozialeko Sailaren FIC (Fractalidades en Investigación Crítica) Ikerketa Taldeko kidea. Feminismoarekin loturiko lan eremuak, besteak beste, honako hauek dira: epistemologia eta metodologia kritiko feminista, ikerketa parte-hartzailea, kolonialismoaren ondorengo teoriak, gizarte-mugimenduak, migrazioak eta gorpuztasuna.

## Nagore García Fernández

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Psikologia Sozialeko Sailaren FIC (Fractalidades en Investigación Crítica) Ikerketa Taldeko kidea. Psikologia sozial kritikoaren eta azterketa feministen eta generokoaren artea da bere ibilbide akademikoa. Gaur egun, ikerketa-lan bat egiten ari da gazte feminista aktibisten maitasun esperientzien inguruan. Modu aktiboan parte hartzen du Ningún Lugar kultura elkartearen, Bartzelonan.

## Jokin Azpiazu Carballo

Soziologiako lizentziaduna, eta Ikasketa Feminista eta Generoko Ikasketen masterra UPV/EHU, *Grupos de hombres y discursos en torno a la masculinidad* tesinarekin. SIMReF-eko kidea da, eta gaur egun tesia egiten ari da, LGTB subjektibotasunei eta heteronormatibitateari buruz, ezkerreko herri mugimenduen testuinguruan.

## Ochy Curiel

Gizarte-antropologo, ikertzaile eta aktibista feminista dominikarra, Kolonbian bizidena. Generoko Ikasketen Maisutzaren arduraduna da Kolonbiako Unibertsitate Nazionalean, eta irakaslea Latinoamerikako hainbat unibertsitatetan. Casa por la Identidad de las Mujeres Afro proiektua koordinatu zuen. Identitateak, interseksionalitatea, kolonialismoaren ondorengo teoria eta arrazismoaren kontrako feminismoa gaiei buruzko ikerketak egin ditu, eta hainbat lan argitaratu ditu. Azken liburuan, *La nación heterosexual*, diskurtso juridikoari eta erregimen heterosexualari buruzko azterketa bat egin du, dominazioaren antropologiaren ikuspegitik.

## Amandine Fulchiron

Aktibista feminista eta Guatemalako Actoras de Cambio talde feministaren sortzaileetako bat da. 2004. urteaz geroztik sanazioa, autokontzientzia eta memoria sozialeko prozesuak bultzatzen ditu, gerra garaian emakume maien kontra izandako sexu jazarpenei buruzko isiltasuna hausteko eta ez errepikatzeke baldintzak sortzeko helburuarekin. *Tejidos que lleva el alma, Memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado* (2009) liburua oinarri izan zen diziplinarteko eta kulturarteko ikerketa taldea koordinatu zuen.

## Elena Grau

Historia Garaikidean lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Mugimendu feminista katalanari eta bakearen aldeko emakume sareen jardueri buruzko ikerketak egin ditu, eta feminismoaren eta ez-indarkeriaren arteko loturetan sakondu du. Gizarte-mugimenduekin lotura duten gune ugarian parte hartu du, hala nola, *En Pie de Paz* edo Betiko Fundazioaren *Anuario de movimientos sociales*-en. ICIP-Institut Català Internacional per la Pau Institutuaren Prestakuntza eta Zabalkunde Saileko arduraduna da. Kolonbiako emakumeen giza eskubideen urraketari buruzko ikerketarik handiena egin duen Kolonbiako Emakumeen Bake Ibilbideak koordinatutako taldeko kidea izan da. Ikerketa hori *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia* (2013) liburuan argitaratu da.

## Carmen Gregorio Gil

Doktorea gizarte-antropologian, eta Granadako Unibertsitateko Gizarte Antropologia Saileko zuzendaria. *Otras. Perspectivas feministas en investigación social* Ikerketa Taldearen zuzendaria da, bai eta I+B+G Plan Nazionala proiektuarena ere (2009-2012). Etnografiando prácticas de resistencia. *Escenarios, eventos y narrativas en la construcción de la ciudadanía*. Generoari eta migrazioei buruzko ikerketak egin ditu eta lan ugari argitaratu ditu; besteak beste, *¿Por qué tienen que decir que somos diferentes? Las mujeres inmigrantes, sujetos de acción política* (2010) ikerketa-ekintza eta argitalpena zuzendu ditu.

## Mari Luz Esteban

Medikuntzako lizentziaduna UPV/EHU, eta gizarte-antropologiako doktorea Bartzelonako Unibertsitatean. Gizarte-antropologiako irakaslea eta Ikasketa Feministen eta Generoko Ikasketen Masterraren arduraduna da UPV/EHU. Espezialista da antropologia feministan eta medikuntzaren antropologian. Hainbat ekimen eta elkarte feministatan parte hartu du. Feminismoari, identitateei, gorputz etnografiari, maitasunari, osasunari eta beste hainbat gaiari buruzko argitalpen ugari egin ditu. Egingandako lan ugariak direla-eta, garrantzizko erreferentzia teorikoa eta aktibista da unibertsitatean eta gizarte-erakundeetan.